

LANBIDE HASTAPENA

Lanbide Hastapena lanean hasteko edo hezkuntza-sisteman jarraitzeko arazoak diala eta eskola utzi daben gazteen beharriaz erantzuteko sortutako zerbitzua da.

Bere egitasmoa, titulurik izan gabe Hezkuntza Sistema Arautua utzi daben 16 urtetik 21era bitarteko gazteei laguntza zuzena ematea da.

Programak bi ikasturte irauten dauz eta bakoitzak 1.000 ordu daukaz. Bigarren ikasturtean lantokiko prestakuntza-aldia dago 450 ordukoa gehienez. Ordu horreek 1.000 orduen barruan zenbaturik.

Hezkuntza, Unibertsitate eta ikerketa Sailaren ardurapean dagoz antolakuntza, curriculum, jarraipena, ebaluazioa eta arautu beharreko gorabehera guztiak, zuzenenean, Pedagogi Berrizatzeko Zuzendaritzatik. Ikastaroak astean 30 ordu daukaz.

Programaren edukiak honetara banatzen dira:

- Oinarrizko Lanbide Teknikak.
- Oinarrizko Prestakuntza
- Tutoretza eta Lanbide Orientazioa.

Lanbide-Profilen zerrendatik, Bermeon arlo honek lantzen dira:

Lanbide-arloa: Fabrikazio Mekanikoa

Lanbide Profilak:

- Soldadurako Langilea
- Zurgintza metaliko Langilea
- Errementari-forjaria

Lanbide-arloa:- Ostalaritza eta Turismoa

Lanbide Profilak:

- Sukaldeko Laguntzailea
- Taberna-Jatetxeko Zerbitzu-Laguntzailea
- Okindegi-Gozotegiko Laguntzailea

Lanbide-arloa: Ibilgailu Autopropulsatuen Mantentze lanak

Lanbide Profila:

- Ibilgailuen Konponketarako Langilea

Lanbide-arloa: Mantentze-lanak eta Produkzio Zerbitzua

Lanbide Profilak:

- Eraikinen oinarrizko mantentze-lanak
- Iturgintzako langilea.
- Gas eta kalefakzio-instalazioetako langilea.

Arlo honeek ez dira batera emoten. Urte batetik bestera aldatu egiten dira.

⊗ Matrikula epea: Maiatza eta Ekainean.

⊗ Ikasturtearen hasiera: Urria.

⊗ Programa hau Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta Bermeoko Udalaren arteko Lankidetzeta-Hitzarmen baten bidez eratzen da. Bermeoko Udalak kostuaren %30a eta lokalak jarriz.

⊗ Bermeon 1990ean sinatu zan lehenengo hitzarmena.

⊗ Programa hau lan kualifikazio sistemaren lehenengo maila da. 4. SUSTAPENA Sasoiz eta egutegiaren arabera INEMek eta LAN SAILAK finantzaturiko ikastaroak lan gabe dagozan pertsonentzat.